

Leihatila ① PAULO AGIRREBALTZATEGI (Idazlea eta itzultzailea)

Manex Erdozaintzi-Etxarten heriotzaren 20. urteurrena. Aurki izango dira 20 urte Ibarrolako idazlea hil zenetik. Hark egindako lanarekin batera, Manex Gogoan taldeak haren omenez egindako lanak eta hari buruz idatzi diren hainbat lan ere ekarri ditu gogora artikularen egileak.

Manex Erdozaintzi, 20 urte geroago, gogoan

Laster izango dira 20 urte: 1984ko apirilaren 29an hil zen Manex Erdozaintzi Ibarrolako idazle eta poeta, eta kultur eragilea, Okzitaniako Tolosan. 50 urte zituen, eta bihotzkoak jota hil zen, utzi berri gaituen Andolin Eguzkitza bezalaxe. Bihotz handikoak biak, bihotzetik hil behar. Agur eta ohore Manexi eta Andolini!

Arrasto ixil zabaldu utzi zuen Manexek, bizitzan barna, jardun zen eremu guztietan: euskal literaturan, irakaskuntzan, gizarte-lanetan, kristauen eta frantziskotarren komunitatean... Haren arrastoak aitzina jarraiki du, eta haren eragina zabaldu egin da, hilondoko hogeitau urteotan.

Erdozaintziren heriotzako hamargarren urteurrenaren kariatz eratu zuten Donapaleu inguruko lagunek *Manex gogoan* ekimena, eta hainbat kultur omenaldi-ekintza antolatu zituzten, Donapaleuko frantziskotarren eliza eta etxean buruturiko kultur gaualdi gogoangarria, besteak beste, non Manexen poemak errezitatu eta abestu baitzituzten Euskal Herriko kantari eta artistek. Ondorioz bi kasetetan argitaratu zituzten denak, Manex Erdozaintzi-Etxart gogoan izanarekin. Omenaldi-ospakizun haietako fruitua izan zen *Manex gogoan*. Donapaleuko hitzaldi eta lekukotasunak liburua ere, Euskal Herri osoko hainbat lagunek eskainitako oroitza-pen-testuak jasoko zituen, eta *Maiatz* aldizkariak argitaratua.

Manexen poema anitz kantatu izan di-

tuzte euskal kantariak. Hoiakin eta arestian gogoratutako Donapaleuko 1994ko kantaldiarekin batera, bereziki aipatzekoa da 1999ko otsailaren 26an, Donapaleun bertan, Bordaxuri taldeko Txomin Hegi, Pantxo Kousteau eta Martie Hélène Estekahandik emandako *Lur Ezpalak* izeneko ikuskizuna, non Manex Erdozaintziren hogeitau bat testu deklamatu eta kantatu baitzituzten.

Manex gogoan taldeak bizirik eta lanean jarraitu du, eta horren eraginez sortu berria dute gune kultural berezia Donapaleuko frantziskotarren etxean, baliabide informatikoez baliaturik. Bi helburu ditu horrek: helduei euskara irakastea, batetik, eta etxe hartatik igaro ohi diren Donejakueko erromes ugari hainbat jakingarri eskaintzea, bestetik: Euskal Herriari buruz, Donejakue bideari buruz, Donapaleuko etxeari eta frantziskotarrei buruz.

Erdozaintzi hizlari eta idazle izan zen funtsean. Ez pulpituetak sermoilari arranditsua, talde txikiak hizlari hurbilekoa eta solas-eragilea baino; horrelako hitzaldiak eta talde-animazioak egunerokoak izan zituen. Idazle-sena zeraman gainera barruan, eta bere beselako lanek uzten zioten tartetean idatzi egiten zuen, bereziki poesia. Aldizkarietan emandako idazlan ugari gainera, bi liburuk argitaratu zituen, bizi zelarik: *Hinki-Hanka* poema-sorta (Elkar, 1978) eta *Gauaren atzealdean* nobela (Elkar, 1982). Baina beste poema eta idazlan asko utzi zuen argitaratu gabe eta argita-



Manex Erdozaintzi-Etxart. BIDEGILEAK

ratzeko. Heriotzako hamargarren urteurrenaren kariatz edo, argitaratu zituzten beste bi poema-liburu: *Herri honen errailetan* (Maiatz, 1994) eta *Bizitza pilpirak* (Maiatz, 1995). Gainera *Hinki-Hanka*-k bigarren argitalpena izan zuen 1995ean.

Manex Erdozaintzik utzitako liburutegia eta artxiboa ondo zaindurik daude Donapaleuko Frantziskotarren etxean, horretarako Joan Joxe Iturrioz-ek ipinitako arta eta lanari esker. Azken hilabeteotan horko titulu eta material guztien datu-base digitalizatua lantzen ari dira,

Manexen zaleen eta ikertzaileen zerbitzurako.

Hain zuzen ere, liburutegi eta artxiboa horretaz baliatu ahal izan dira azken urteotan Manexen bizitza, pentsamendua eta literatur-obra gogoz eta zehaztasun handiz ikertu duten Xabier Lasa eta Agurtzane Ortiz. Xabierrek argitaratua du bere liburua: *Manex Erdozaintzi-Etxart. Bizitza eta pentsamendua* (Arantzazu E.F., 2000); Agurtzane, berriz, laster aurkeztuko du bere doktoretza-tesia: *Manex Erdozaintzi-Etxarten Biografia, poetika eta obra*. Batak nahiz besteak lan eskerre egin dute haren argitaratutako idatziak eta haren artxiboa ordenatzen, sailkatzen eta mihatzen, hura hurbildik ezagutu zuten hainbat lagun informazioa jasotzearekin batera. Bi autoreek landutako artxiboaren beraren ezagutza zehatzagoa izateko modua izango dugu nonbait laster.

Bada Manexen beste biografia mardul bat, duela urte batzuk haren argitaratutako eta argitaragabeko idatzen eta gutunen gain landua. *Sinesten dut. Manexen Erdozaintzi-Etxarten bizi* obra Mikel Ibarra izenez dago sinatuta, eta hurbileko gogoeta pertsonal gisa eratu-ta. Tituluaren lehen hitzek, «Sinesten dut», Manexen poema ezagunetako bat gogoratzen digute, jakina. Mereziko luke biografia horrek ere argia ikustea, frantziskotar idazle eta poetaren heriotzako hogeigarren urteurrenaren kariatz argian.

Bitartean, Manexek «gogoan» dirau.

Euskal liburuak itzultzea da EIEren aurtengo asmo nagusia

Batzar Nagusia egin zuen atzo, eta estatutuak eta zuzendaritza berri

AINARA GOROSTITZU - DONOSTIA

Urteko Batzar Nagusia egin zuen atzo Euskal Idazleen Elkarteak (EIE), Uztaritzen. Iazko egitasmoen akta eta balantze ekonomikoa onartu ostean, zuzendaritza batzordea berri zuten. Tere Irastortzak jarraituko du lehendakartzan, eta lehendik zeudenetatik Jon Inaki Lasak eta Andoni Sarriegik jarraituko dute. Berriak, atzo izendatutakoak, Jon Urrujolegi, Aritz Gorrotxategi, Isabel Millet eta Eneko Bidegain dira.

Aurtengo «erronka nagusia» itzulpengintzan «buru-belarri

sartzea» izango da, Ana Urkiza EIEko idazkariaren arabera. Unescorekin eta *Metamorphosis* AEBetako aldizkariaren laguntzaz gauzatu du EIEk egitasmoa. Unescorekin hiru liburuk itzuliko dituzte datorren urtean; poesia itzuli eta ezagutarazteko, AEBetako aldizkaria erabiliko dute, eta EIEren web orriaren atal nagusiak eta idazle bakoitzaren lanaren lagin bat ingeleseratuko dute. «Europar mugitzeko asmoarekin eta gure idazleen promozio zuzena egiteko asmoarekin». Webguneko lana Asier Rekondo bazkidekegingo du.

2000-2004 urterako egindako plan estrategikoaren hustuketa egin zuten, plan estrategiko hura bukatutzat eman eta 2008 artekoari hasiera emanez.

Iazkoari begira, hainbat egitasmo berri jarri zituen abian EIEk. Irakasleentzako gidak argitaratu zituen, *Liburuen xarma* atalean. Sail horretan, antzerkia eta ipuina lantzeko bi lan talde jarriko dira martxan aurteng. Idazle eskola ere antolatu dute, «aurreikuspenak betez, eta aurtengo erronka bigarren ikasturtea antolatzea izango da». Iazko egitasmo nagusia Galeusca Gernikan antolatzea izan zuen EIEk.



UZTARITZEKO Lota jauregian elkartu ziren idazleak. GAITZA/IBO7